

582/2025 EBAZPENA, APIRILAREN 2KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ BAIESTEN BAITIRA PROZESU ASISTENTZIALEN ZERBITZU SANITARIOKO BURU LANPOSTUA HAUTATZEKO DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA, VITORIA-GASTEIZKO OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARITZAKO OSPITALEKO ARRETA KOORDINATZEKO ZUZENDARIORDETZAKO PROZESU ASISTENTZIALEN ZERBITZUAN.

AURREKARIAK

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren urtarrilaren 13ko 48/2025 Ebazpenaren bidez, deialdia argitaratu zen Prozesu Asistentzialen Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko Vitoria-Gasteizko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzako Prozesu Asistentzialen Zerbitzuan (2025eko urtarrilaren 23ko EHAA, 15. zk. eta 2025eko otsailaren 5eko BOE, 13. zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, 15 egun balioduneko epea ezartzen da eskabideak aurkezteko, deialdiaren ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori 2025eko otsailaren 26an amaitu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 5eko 430/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, lan-arloan indarrean den legediak aitortzen dizkidan eskumenak baliaturik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikulua araberako (azaroaren 14ko EHAA, 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Prozesu Asistentzialen Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea (I. eranskina).

BIGARRENA.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea (II. eranskina).

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 2a.



Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

I. ERANSKINA

PROZESU ASISTENTZIALEN ZERBITZU SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA.

Onartuen behin betiko zerrenda:

ROBERTO CIORDIA DOMÍNGUEZ

Baztertuen behin betiko zerrenda:

INOR EZ

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 2a.

II. ERANSKINA

PROZESU ASISTENTZIALEN ZERBITZU SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA. BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ospitaleko Arreta Koordinatzeko zuzendariordea: Koldo Berganzo Corrales.

Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko zuzendariordea: Jorge Romeo Ollora.

Lehenengo batzordekidea:

Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzu Sanitarioko burua: Adelina Pérez Alonso.

Ordezkoa: Uribeko ESiko G3 Ospitaleko zuzendari medikoa: Patricia Rodríguez Landajuela.

Bigarren batzordekidea:

Bilbo-Basurtuko ESiko Basurtuko Ospitaleko zuzendari medikoa: Alejandra Gil Molet.

Ordezkoa: Donostialdeko ESiko Donostiako Ospitaleko zuzendari medikoa: Sara Arévalo Lobera.

Hirugarren batzordekidea:

KSUko fakultatibo espezialista medikoa: Rafael Sánchez Bernal (IVAPen proposamena).

Ordezkoa: KSUko fakultatibo espezialista medikoa: María Marbella García Urbaneja (IVAPen proposamena).

Idazkaria:

Zuzendaritza Nagusiko Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea: Xabier Arauzo Uriarte.

Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Hautaketa Zerbitzuko burua: Miriam Aparicio Sáez.